

02

Nerabegaroko indarkeriazko portaerei erantzunak

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

2008ko azaroa



3s_berrikuntza

Nerabegaroko indarkeriazko portaerei erantzunak

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko taldea

2008ko abendua

Egileak: Isabel Massa y Aritza Bergara
Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea
Imprimaketa: Berekintza

ISBN-13: 978-84-936634-1-4
Lege-gordailua: BI-3738-08

Prezioa: 10 euro
Argitalpen hau doan deskarga daiteke web gune honetatik: www.3sbizkaia.org

NERABEZAROKO INDARKERIAZKO PORTAEREI ERANTZUNAK

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera..... | 5 |
| 2. Gaiaren aukera..... | 6 |
| 3. Sormenezko Lantegiko parte-hartzaileak..... | 7 |
| 4. Metodologia..... | 7 |
| 5. Identifikatutako solasgai giltzarriak..... | 9 |
| 5.1. Arazoa eragiten duten faktoreei dagokienez..... | 9 |
| 5.2. Esku hartzeko prozesuari dagokionez..... | 11 |
| 6. Badauden baliabideen azterketa..... | 13 |
| 7. Gaur egungo errealitatea aldatzen..... | 15 |
| 7.1. Esku hartzeko prozesuan aurkitutako alderdi txarrak..... | 15 |
| 7.2. Esku hartzeko prozesuan aurkitutako alderdi onak..... | 16 |
| 7.3. Esku hartzeko prozesuan hobetu beharreko alderdiak..... | 17 |
| 8. Ondorioak..... | 17 |
| Bibliografiazko erreferentziak..... | 18 |
| Eranskina. Esku hartzeko egun dauden baliabideak..... | 19 |

1. Sarrera.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, informazio- eta dokumentazio-zentroa eta ikerketa aplikatuko eta sustapeneko zentroa da, Hirugarren Sektorean espezializatuta dagoena. Irabazi-asmorik gabekoa eta burujabea da, eta Bizkaiko Hirugarren Sektorea indartzea eta bertoko erakundeen esku-hartzea eta kudeaketaren berrikuntza eta hobekuntza sustatzea ditu helburu.

“3S Berrikuntza” bildumaren asmoa, Hirugarren Sektoreko erakundeen eta sareen, eta interesa agertzen duten beste agente batzuen eskura, euren esku-hartzea hobetzeko ikuspegiak, ikuspuntuak, proposamenak eta tresnak jartzea da, baita, gizartean agertuz doazen edo betetzen ez diren premiak beteko dituzten egitasmo berritzaileak abiaraztea ere.

Zure eskuetan duzun lana, “Sormenezko Lantegia” delakoaren (gizarteko arazoei konponbide berritzaileak emateko sortutako gogoeta-tokia) bigarren esperientziaren emaitza da.

2006an, Sormenezko Lantegiak, ondoan adin nagusirik ez duten edo bakarrik dauden adingabe etorkinen egoerari ekin zion. Geroago, 2007. urtean, saio horien edukiak landu ziren, eta ondorio gisa, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak, “3S Berrikuntza” izeneko bildumaren lehen argitalpena kaleratu zuen: *Bakarrik dauden adingabeko etorkinekin jardueren alternatibak*.

Emaitzak ikusita, eta eztabaidatzeko topaguneak sortzeko beharra zela eta (erakundeen eta inplikaturako agenteen arteko elkarrizketaren bidez, konponbide berriak, desberdinak eta berritzaileak sorzitezkeen), Sormenezko Lantegiak bigarren esperientzia bati ekitea erabaki zuen. Horrela, 2008ko apirilean, elkarraldiak antolatu ziren. Hemen aurkezten dugun argitalpenak, hortaz, lan-saioetatik eta geroago parte-hartzaile bakoitzarekin egindako egiaztapenetik ateratako ondorioak biltzen ditu.

2. Gaiaren aukera.

Azken garaiotan, ez da arraro gertatzen, komunikabideetan, tratu txarrak ematen dizuten adingabeek ari diren berriak aurkitzea: eskolan, ikaskideei tratu txarrak ematen dizkioten adingabeak; kalean, aisialdian, beste adingabe batzuei tratu txarrak ematen dizkioten adingabeak, baita gurasoei tratu txarrak ematen dizkioten adingabeak ere. Azken egoera hau, familia askotan gertatzen da, eta oso gutxi ezagutzen da.

2005ean, memoria judizialek, seme-alabek erasotako gurasoen salaketa-kopuruak nabarmen gora egin zuela jaso zuten. Espainian, 5.500 salaketa, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko urteekin parekatuz, laukoiztu egin ziren¹. 2007an, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren datuen arabera, EAEn berrogeita hamar adingabe inguru zigortu ziren delitu horrengatik. Aldi berean, profesionalak arazoaz jabetzen hasiak dira, eta salatzea gomendatzen dute eta berariazko baliabideak sortzea sustatzen dute.

EAEko Hezkuntzako Ikuskaritzak, bere aldetik, ikastetxeetan gero eta indarkeria-kasu gehiago da-goela ikusita, 2004-05 ikasturtean gida hau egin zuen: *Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida*.² Urte bat geroago, Arartekoak txosten hau egin zuen: *Bizikidetzak eta gatazkak ikastetxeetan*. EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan Arartekoak egindako ikerketa.³ 2007an, Eusko Jaurlaritzak, ikastetxeetako jokabide-gertaera larriei ekiteko gida egin zuen berriro. Urte berean, Eusko Jaurlaritzak ere gida hau egin zen: *Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuetan jarduteko gida*.⁴, zeinean, besteak beste, ikasleek irakasleei emandako tratu txarrak aztertzen ziren.

Aldi berean, 2007. urtean, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Zigor Bete-arazpenaren Zuzendaritzak, ikerketa-proiektu hau egitea agindu zuen: *Violencia filio-parental. Conductas violentas de jóvenes hacia sus padres*⁵.

Erakundeek gai honetaz geroz eta interes gehiago izateak eta adingabeen indarkeria-kasuek gizar-tean sortutako alarmak, agerian utzi dituzte, jokabide-aldaera handia, problematika honen kausalitate-aniztasuna, eta indarkeriazko jokabideak dituzten nerabeen profilen artean dauden desberdintasun handiak. Hain zuzen ere, horrengatik, indarkeriazko fenomeno eta jokabide desberdinetara egokitutako baliabideak dauden galdetzen diegu gure buruei, baita erantzun berririk eman behar den ere.

1 *Violencia filio-parental: un fenómeno emergente*. Mosaico aldizkaria. 2006ko abendua, laugarren garaia, 36. zk.

2 *Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Orokorra, 2007, 44 or.

3 *Bizikidetzak eta gatazkak ikastetxeetan*. EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan Arartekoak egindako ikerketa. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa, 2006ko urria, 290 or.

4 *Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuetan jarduteko gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Orokorra, 2007, 42 or.

5 Ibabe, I., Jaureguizar, J. eta Díaz, O. *Violencia filio-parental. Conductas violentas de jóvenes hacia sus padres*. Vitoria-Gasteiz: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Orokorra, 2007, 144 or.

3. Sormenezko Lantegiko parte-hartzaileak.

Sormenezko Lantegiaren bigarren esperientzia honetan pertsona hauek parte hartu izana eskertzen dugu:

- **Carmen Díaz**, Nortasun/Nahastea Dutenei Babesa eta Tratamendua Emateko eta Gizarteratzen Laguntzeko Euskal Elkarte (AVATI).
- **Cristina Merino**, abokatua eta Familia Bakegintzarako Euskal Elkarteak (Eusko Jaurlaritzako Familia Bitartekotzarako zerbitzuaren erakunde adjudikazioduna) kudeatzen duen Familia-Bitartekotzarako Zerbitzuko bitartekaria.
- **Izaskun Ibabe**, EHUko Psikologia Fakultatekoa.
- **José Alberto Vicente**, Harribide Fundaziokoa.
- **Josean Morgado**, Berriztu Hezkuntza Elkartekoa.
- **Juan Zalduondo**, Amigó Fundazioko Zabalondo Etxea proiektukoa.
- **María Teresa Orue**, Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzukoa.
- **Noelia Moyano**, Gizartegintzako Agintzari Sozietate Kooperatibokoa.
- **Raúl Picó**, Amigó Fundazioko Zabalondo Etxea proiektukoa.
- **Sara Peciña**, Ongizate Psikosozialerako Elkartekoa (ADI-EGON).
- **Serafín Martín**, talde psikosozial judizialekoa.
- **Teresa Arroyo**, Nortasun/Nahastea Dutenei Babesa eta Tratamendua Emateko eta Gizarteratzen Laguntzeko Euskal Elkarte (AVATI).
- **Yolanda Sánchez**, Nortasun/Nahastea Dutenei Babesa eta Tratamendua Emateko eta Gizarteratzen Laguntzeko Euskal Elkarte (AVATI).

Bertaraturiko guztiak, profesional edo boluntario gisa lan egiten duten erakundeen ordezkari etorri ziren. Taldearen osaerari esker, ikuspegi desberdinak ezagutu ziren, zeren eta parte-hartzaileak, zuzenean kolektibo honekin lan egiten duten edo problematikak ukitutako familiek osaturiko prestakuntza- edo ikasketa-mundukoak nahiz administrazio publikokoak eta hirugarren sektoreko erakundekoak baitziren. Aipatu beharra dago, hezkuntza-arloko pertsonen agenda-zailtasunak zirela eta, mintegiaren edukia gurasoenganako indarkeria izan zuela xede batik bat.

Parte-hartzaile gehienek, arazo horri buruzko ikuspegi desberdinetan sakondu nahi izan zuten, baita horri ekiteko dauden baliabideak ezagutu eta ordura arte egiten ziren esku-hartzeak aberastu ere, koordinazioa eta sare-lana hobetzarren.

4. Metodologia.

Sormenezko lantegian erabilitako metodologia, bilduma honetako lehen zenbakian azaldu zen xehe-xehe, baina adierazi nahi genuke, “Sormenezko lantegia” izenak berak zera esan nahi duela:

- Alde batetik, “Lantegia” hitza, lan egiteko toki batez ari zaigu. Horixe da, hain zuzen ere. Kontua ez da gainerako mintzaldiak entzutea edo nork bere ideiak adieraztea bakarrik. Abiapuntua izango da, jakina, baina parte-hartzaileak lan egitera datoz, guztion artean gaiaren azterketa egitera.
- Bestetik, abizena hartu behar dugu kontuan. “Sormenezko” hitza, jarduteko moduz ari zaigu. Problematikari modu desberdin eta berritzaile batetik ekin beharko zaio, aurretiazko ikuspegiak alde batera utzita. Iritzi guztiak dira baliiodunak, eta guztiak hartu behar dira kontuan eta, hortaz, errespetatu egin behar dira, zeren eta kontzeptu-asoziazio berriak ekar ditzakete, eta horiek, ideia eta ikuspegi berriak, proposamen edo konponbide gauzatuz.

Sormenezko Lantegia, bere burua garatzeko, ez da azken teknologiez baliatzen. Irudimena martxan jarri besterik ez da egin behar. Horretarako, gela esaldi probokatzailuez apaindu zen. Esaldi horiek sormenaren eta bestelako pentsaera izatearen garrantzia azpimarratzen zuten. Lan-saioak espazio dinamikoak ziren, zeinetan pertsonak bakarka esku hartzen zuten, baita bikoteka edo taldeka ere. Horrela, gelaren antolaketa fisikoa aldatzen zen, pertsonak lan egiteko elkartu ahala edo mugitzeko altxatu ahala sortzen ziren beharretara egokitzeko. Txartelak, kolorezko kapelak eta baliabideen fitxa deskribatzaileak erabili ziren, besteak beste, aurreiritziak ahazteko beharra azpimarratuz eta konponbide berrien bilaketa nabarmenduz.


Parte-hartzaileen ezagutzak eta esperientziak oinarri hartuta, ikuspegiak, jardunbideak eta ikuspegiak hartu-emanak sustatu zen, emaitza jardunbidea aberastea izan zedin.

Lana bi saiotan garatu zen:

- Lehenengo saioak bi helburu zituen: alde batetik, parte-hartzaileek elkar ezagut zezaten, eta horien artean lan-giro atsegina sor zedin, eta, bestetik, problematikari ekiterakoan kontuan hartu beharreko faktore giltzarrietan sakondu nahi izan zen. Helburua, hortaz, egoeraren deskribapena edo azalpena egitea izan zen, arazoaren zergatiak eta esku-hartzeko prozesuan kontutan hartu beharreko lehentasuneko alderdiak zein ziren jakiten laguntzeko.
- Lehenengo lan-saioaren helburua, jarduteko ildoak zein izan litezkeen jakitea zen. Horretarako, baliabideen azterketa egin zen, hots, baliabideen mapa taxutu zen. Mapa hori, problematikan eragina zuten aurkitutako gai giltzarriekin gurutzatu zen, gai horiek erantzuna zuten ikusteko edo baliabide berriak sortzeko beharra eskatzen zuten gabeziak zituzten ikusteko. Geroago, baliabide horien indarguneak eta ahuleziak zehaztu ziren, bertaraturikoek hobeto ezagut eta erabil zituzten. Azkenik, nerabegaroko indarkeriazko portaerei eman dakizkieken erantzun posibleen multzoa egin zen.

5. Identifikatutako solasgai giltzarriak.

1. grafikoa - Arazoa eragin duten faktoreak eta esku hartzeko prozesua.



5.1. Arazoa eragiten duten faktoreei dagokienez.

Kausa anitzekoa da problematika eta, kasuz kasu, faktore pertsonalek, familiarrek edo sozialek izan dezakete eraginik gehien, faktore guztiak elkarrekin lotuta badaude ere. Izan ere, nerabezaroko indarkeriazko portaera asko, behar ez bezala lagundu ez den koskortzearen ondorio dira. Baina gainera, batzuetan, egoera, nortasunaren gaixotasunak edo nahastea edo gai toxiko baten adikzioa direla eta, gaizkiagotu egiten da.

Gaur egun adingabeen indarkeriaren hazkunderan eragin zuzena edo zeharkakoa duten zergatien artean, honako hauek daude:

- **Faktore familiarrak**

Familia-eremuan, arazoa eragiten duten faktoreetako bat, familiarren barruan gertatzen diren tratatu txarrak behin eta berriro emateagatik sortzen da. Adingabeak indarkeria legitimatzen du bere helburuak lortzeko, bere etxean ikusi duena baita.

Bigarren faktore eragilea, familietan erreferentzia argirik ez izateak dakar. Familia-nukleoaren rola ez badaude behar bezala zehaztuta, adingabeek portaera desegokiak izan ditzakete. Guraso bakarreko familiak (esaterako, ama eta seme-alabak) eta ezkontzako azpisisistema (dibortzioa eta familia-nukleo berria) aldaketa gertatu den kasuak dira kalteberenak egoera hauen aurrean.

Hirugarren faktore bat, ikasitako hezteko eratik dator. Guraso batzuk haizukorregiak dira seme-alabekin, eta haizukortasun honi gehitzen bazaio heziketa-mugak jartzeko zailtasuna, seme-alabak jauntxo hutsak bilakatzen dira. Gainera, guraso batzuek gehiegi babesten dituzte seme-alabak, eta ondorioz, adingabe batzuek izaera heldugabea izaten dute.

Laugarrenez, gero eta komunikazio gutxiago dago etxekoen artean, eta gero eta balio on gutxiago irakasten dizkiete gurasoek seme-alabei. Ondorioz, gero eta indarkeriazko portaera gehiago dago nerabezaroan.

Bestetik, kontuan hartu beharreko aldagaien artean, ikusten dugu sexua ere kontuan hartu behar dela, zeren eta, amek jasaten baitituzte eraso gehienak, eta semeengandik batik bat. Zergatien artean, aipa genezake, kultur jarraibideak kopiatzen direla eta, bestetik, amek eman ohi dutela denborarik gehien adingabearekin.

Azkenik, kontuan hartu beharra dago, gurasoek ez dutela erantzukizunik euren gain hartzen seme-alaben indarkeriazko jarreraren aurrean. Beti argudiatzen da errua adingabearena dela, eta gurasoek, semearen edo alabaren jarrera oldarkorraren aurrean, ez dute inolako erantzukizunik euren gain hartzen.

- **Gizabanakoaren faktoreak**

Gizabanakoaren faktoreen edo baldintza pertsonalen artean, hauek aipa ditzakegu: portaeren desmoldaera edo orekarik eza, gainerakoekin harremanak izateko moduaren desmoldaera, enpatiarik eza, ikasitako indarkeriazko jokabideak errepikatzea edo frustrazioa gutxi jasatea, besteak beste.

Gainera, bereizi beharra daude, alde batetik, gizabanakoaren nortasunaren ezaugarri jakin batzuk, arrisku-faktoreak izan daitezkeenak, hala nola, nor bere burua kontrolatu ezina edo frustrazioa oso gutxi jasatea, eta, bestetik, nortasun-nahastea duten pertsonak, portaera oldarkorrek izan ditzaketenak.

Aipatu behar dugu, baldintza pertsonalak eta baldintza familiarak estu lotuta daudela, zeren eta familia faktore babeslea edo arrisku-faktorea izan baitaiteke, edo alderantziz. Norabide biko harremana dago.

- **Berdinen arteko harreman-motarekin loturiko faktoreak**

Erasotzaile diren adingabeen artean harreman normalizaturik ez egotea da, kontuan hartu beharreko alderdi nagusienetako bat. Eskuarki, berdinen arteko taldeekin izaten dituzte harremanak (talde horiek ere euren etxeetan indarkeriazko jokaerak izaten dituzte), baita drogak hartzen dituzten, lapurtzen edo antzeko jokabideak dituzten talde disozialekin ere (talde horiek beste taldeekin indarkeriazko jokaerak izaten dituzte, eta gauza bera gertatu ohi da talde bereko kideen artean). Hala ere, oso gauza bitxia da, gurasoenganako indarkeriaren kasuan, jokabide horiek oso gutxitan adierazten direla hitzez berdinen arteko taldean, ez baita ontzat jotzen. Izan ere, adingabeek badakite gaizki jokatzeko dutela, eta ez ohi dira abegi-etxe batean barneratzearen benetako arrazoiak azaltzen.

Tratu txarren eta alde aurretiko jarrera antisozialen artean zerikusirik badagoela antzematen da, hortaz. Beste datu bat hartu behar da kontuan: indarkeria fisikoa gehiago gertatzen da adingabeen artean, eta emozionala, berriz, sexu femeninoan.

- **Gizarte- eta kultura-faktoreak**

Gizarte- eta kultura-faktore batzuk, indarkeriarekin zerikusi zuzenik ez badute ere, nolabait, horrelako jokabideen ugaltzean eragina izaten dute: balio-galera, aginteari errespeturik ez izatea, hedonismoa, haizukortasuna, erlatibismoa, kontsumismoa, berehalako gogobetetasuna, aisialdi nahasia, Ezaugarri horiek guztiek, gaur egungo gizartearen bereizgarri.

Halaber, bizimoduan aldaketa nabarmena gertatu da. Umeak hazi eta hezteko denborarik ez izatearen ondorioz, adingabeek denbora asko ematen dute bakarrik, telebista ikusten, esaterako, eta, nagusiek, berriz, oso bizi-erritmo azkarra jasaten dute, eta ez dute denborarik izaten seme-alabekin jolasteko. Batzuetan, adingabeek eskolaz kanpoko jarduera asko izaten dute,... Hau da, bakarrik eta estresatuta daude.

Kausa-efektua edo zergati-ondorioa dagoela esaterik ez badago ere, kontuan hartzeko aldagaiak dira guzti horiek, zeren eta, nolabait, arazoan dute eragina.

5.2. Esku hartzeko prozesuari dagokionez.

Esku hartzeko prozesuan, hainbat faktore giltzarri aurkitu dira. Horra hor:

- **Prebentziozko lana sustatzea**

Adingabeen indarkeriari ekiterakoan, kontuan hartuko beharko da goiz antzematea. Lehenetsuna du arazoa identifikatzea, kasua arlo judizialera heldu baino lehen. Horiek horrela, azpimarratzekoa da, talde hauek goiz antzematean duten zeregin garrantzitsua: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Gizarte-Hezkuntzaren arloan Esku hartzen dituzten taldeak, Familia Bitartekotzarako Zerbitzua, ikaskuntza-erkidegoak, aisiako eta astialdiko udal-zentroak, aisialdi hezitzaileko taldeak, unibertsitatea, elkarteak eta fiskaltza bera.

Gainera, azpimarratu beharra dago, familiekin prebentziozko programak sortu behar direla, tratu txarrik gerta ez dadin.

- **Kolektiboaren profilaren arabera esku-hartze bereiziak egitea**

Esku-hartze mota bereizi behar da, aldagai hauen arabera:

- Gai toxikoak hartzen badira.
- Arreta-faltagatiko nahasterik edo nortasun-nahasterik badago.

Aldagai hauei dagokienez, kontu handiz ibili behar da horien definizioekin, zeren eta, oso termino zabalak direnez, profesionalak beraiek ere ez baitakite non dagoen nahaste horien muga, eta askotan, saski-naskia dira.

Izan ere, adin-nagusitasuna baino lehen nortasun-nahastea diagnostikatzen dagoen zailtasuna da, ezaugarri hauek dituzten adingabeak artatzeko berariazko baliabiderik ez egotearen arrazoietako bat. Delitu-egitaterik badago, esku-hartzea arlo honetara mugatuko da, eta alde batera utziko du nortasun-nahastea.

Orain dela gutxi, Bizkaiko Foru Aldundiak psikiatra batzuekin lan-taldea eratu du, problematika hau sakon aztertzeko eta kolektibo honentzat berariazko baliabideak abiarazteko, zeren eta, gaur arte, zentro normalizatueta txertatu behar izaten baitira.

- Esku-hartze judiziala badago ala ez.

Erabiltzen den neurri judiziala zentro batean barneratzea bada (zaintzapeko askatasuna edo gizartearentzat lan egitea, izan beharrean), guraso askok ez dute batere gustuko, zeren eta, adingabea (beste delitu batzuegatik salaketarik ez badago) beste adingabe arau-hausle batzuekin harremanak izatean, delitu egingo duen beldur dira. Izan ere, indarkeria aita eta amaren aurka erabiltzen duten adingabeen erdiak ez du beste delitu batzuegatik salaketarik izaten.

Badaude, ordea, barnealdi-neurrien ordezkoren neurriak, eta ongi burutzen badira, bide eraginkorra izan daitezke esku-hartzea arrakastatsua izan dadin. Gainera, neurri judizialak delituaren astuntasunaren arabera izaten dira, eta gaztearen tratamendu-beharrak neurria bete ondoren jarrai daitezke. Halere, berariazko baliabideak abiarazi beharra dago, esku-hartze judizialarekin batera egingo direnak, zeren eta esku-hartze judizialak bakarrik oso gutxitan konponduko baitu arazoa. Ez da nahikoa tratu txarrarekin bukatzea. Gainera, familia-harremanak berriz egituratu beharko dira.

Haatik, aipatu beharra dago, zaila dela kategorizazioaren bat ezartzea, askotan, problematikak bata bestearen gainean jartzen direlako, hots, adingabea erasotzailea da, gai toxikoak hartzen ditu eta, gainera, nortasun-nahastea du; zaila da, beraz, esku hartzeko eremuak banantzea.

Azkenik, kontuan hartu beharra dago, jakin behar dela adingabeak gai toxikoak hartzearen jatorria, hau da, pertsona batek drogak hartzen ditu eta ondorioz nortasun-nahastea izango du, edo nortasun-nahasteak berak drogak hartzera bultzatuko duen. Horri buruz ez dago ahobatezko irizpiderik ñ pertsonaren arabera izango omen da -; hortaz, esku-hartzeak, bi alderdi kontuan hartu beharrean, alderdi bat bakarrik kontuan hartzen badu, zati batez esku hartuko da, arazoaren erroan sakondu gabe.

- ***Esku-hartze familiarra***

Funtsezkoa da adingabearekin ez ezik, familiarekin ere esku hartzea. Seme-alabengandik tratu txarrak jasotzen dituzten gurasoak gizabanako gisa berreskuratzeko lehentasuna du. Hau da, norberaren estimua lehengoratzeko, edozein esku-hartze egin baino lehen. Gurasoak euren eskubideez jabetu behar dira, zeren eta askotan ez baitira, familiarreko harremanetan onargarria dena eta onartezina dena bereizteko gai izaten. Gainera, askotan, gurasoek badakite zer egin behar duten, baina ezin dute egiten, horretarako ezgai sentitzen direlako.


Gaur egungo esperientziak adierazten digunez, familien gogoia edo ahalmena oso ona izaten da. Baita kasurik larrienen ere, arazoak jabetzen dira eta familiarren egoera hobetzen laguntzeko eta inplikatzeko prest egoten dira. Hala eta guztiz ere, gurasoek laguntzeko duten nahia zuzenean lotuta dago semearen edo alabaren jokaera aldatzen dela ikustearekin. Jokaerak hobera egiten badu, gurasok esku-hartzeko prozesuarekin jarraitzeko gogoia izango dute. Eskuarki, emakumeak inplikatzen dira gehiago.

6. Badauden baliabideen azterketa.

Lehenago esandako esku-hartzearen prozesuan kontuan hartu beharreko faktore giltzarriekin duten loturaren arabera multzokatu dira baliabideak.

Argitu egin behar da, haietako baliabide batzuek faktore giltzarri batekin baino gehiagorekin dutela lotura. Halere, eremu bakarrean bildu dira, zeren eta eremu horretan garatzen duen batik bat bakoitzak esku hartzeko lana. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte-Hezkuntzaren arloan Esku Hartzeko Taldeak ez dira esku-hartzearen arlo jakin batean sartu, zeren eta, horien ezaugarriak ikusita, adierazitako eremu guztietan baitute eragina. Eranskinean baliabide horien azalpen zehatua dago, esku-hartzearen eremuen arabera egituratuta.

2. grafikoa - Esku-hartzearen baliabideak.



- **Baliabide orokorrak**

Baliabide orokorre dagokienez (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte-Hezkuntzaren arloan Esku Hartzeko Taldeak), adierazi zen Gizarte-Hezkuntzaren arloan Esku Hartzeko Taldeak toki-mailan erreferente direla eta adingabeen eta Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu espezializatuen arteko zubia direla - izan ere, foru-zerbitzuetara bideratzen dituzte kasuak, aurkitzen duten problematika jakinaren arabera.

Horra hor adierazi zen hobetzeko alderdi bat: horrelako egoerei ekiteko, hezitzaileak ingurune irekian eta etxean egotea bultzatu beharra dago. Bestetik, azpimarratu zen, oso zaila dela egoera jakin batzuei ekiteko bokazioa eta gogoia duten pertsonak aurkitzea.

- **Prebentziozko baliabideak**

Nerabegaroko indarkeria prebenitzeko lan egiten duen zerbitzu-sare handia dagoela adierazi zen. Horien artean, aisiako eta astialdiko udal-zentroetan indarkeria goiz antzemateko egiten duten lan garrantzitsua azpimarratu zen, *baita astialdi hezitzaileako taldeak egindako lana ere*. Errealitatearekin lotutako tokiak dira, adingabeen problematika ezagutzen dutenak. Gainera, zentro edo talde horietako langileek bokazioz lan egiten dute.

Ikaskuntza-erkidegoak, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren nahiz ikastetxeen esker ona dute. Gainera, interesdunek beraiek (adingabeak eta familiak barne) antzematen dituzte euren arazoak eta konponbideak aurkitzen saiatzen dira.

Hauxe hobetzea proposatu zen: koordinazio gehiago egon beharko da baliabideen artean, normalizatuak izan ala ez, eta baliabideak udaleko politikekin gehiago lotu beharko dira.

Baliabide batzuen (batez ere, aisia eta astialdiarekin loturikoak) zeregin mugatua eta profesionaltasun txikia aipatu ziren - horrek zail bihurtzen du honelako esku-hartzeetan espezializatutako langileak izatea.

Horra hor aurkitutako beste ahulezia bat: ikaskuntza-erkidegoen denbora mugatua, zeren eta, erkidegoak eratu nahiz martxan jartzea, ikastetxearen borondatearen eta irakasleen interesaren menpean baitago.

- **Hartzaileen profileen arabera egin beharreko esku-hartze motaren arabera baliabideak**

Profilen arabera esku-hartzearen baliabideei dagokienez, lehenago prebentziozko baliabideez aritzean adierazi dugun koordinazio-arazoa ez ezik, baliabide guztietan dauden mugak (oso eskuragarritasun txikia baitute: delitua gertatu arte, ez dago esku-hartzerik) ere azpimarratu ziren. Horrek zera du berekin: problematika oso aurreratuta dagoenean egiten da esku-hartzea. Eta hauxe adierazi zen: gainera, epaile batek horrela erabakitzen duenean bukatzen da esku-hartzea, adingabearen problematika gaindituta egonda ere.

Beste ahulezia bat adierazi zen: baliabide gehienek ez dute arreta berezirik patologia psikiatrikoak artatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte Ekintza Saila- Emakume eta Familia Zerbitzuaren bidez, Etxe Esparruko Nerabe Erasotzaileetan espezializaturiko Familien esku-hartze Programa abiatuko du, 24 hilabetetarako sinatuko da, eta luzatzeko aukera izango du. Esku-hartzeak aurreikusten dira bai erasotzaileekin bai euren familiekin. Publikazio honen argitaratze datan Programa esleipen prozesuan dago.

- **Gurasoentzako baliabideak**

Gaur egun gurasoekin esku hartzen duten baliabideen artean, Familia Bitartekotzarako Zerbitzuaren lana azpimarratu zen, zeren eta, gizartean gizarte-zerbitzuak bezala estigmatizatuta ez dagoenez, *gurasoengana gehiago ondora baitaiteke*, eta beste eremu batean lortu ez diren alderdiez aritzea posible izaten da.

Esku-hartzea eragozten duen elementu batez ari behar gara: nerabeen gatazketan, adingabearen parte hartzearen borondatezkotasuna ez da benetakoa izaten (askotan, familiak behartuta gertatzen da), eta, horrek esku-hartzea eta, ondorioz, emaitzak baldintzatzen ditu.

7. Gaur egungo errealitatea aldatzen.

Gaur egungo egoera ikusi eta badauden baliabideak azaldu ondoren (baliabide horiek eranskinean azaltzen dira xehe-xehe), parte-hartzaileek esku hartzean hobetzeko alderdiez gogoeta egin zuten, baita aldatu behar zenaz ere.

7.1. Esku-hartzearen prozesuan aurkitutako alde txarrak.

- Zaila gertatzen da kasuak antzeman eta desbideratzea, badauden baliabideak ez direlako behar bezala ezagutzen eta ez daudelako antolatuta.
- Ez dago baliabide bakoitzak egin beharreko zeregina zehazten duen irizpiderik. Irizpiderik balego, alderdi guztien arteko lankidetzeta eta koordinazioa bermatuko litzateke eta prozesua arrakastatsuagoa izango litzateke.
- Ez dago esku hartzeko banakako prozesua gidatzen duen irizpide teknikorik eta protokolorik.
- Zaila gertatzen zaie agenteei esku hartzeko erabakia hartzea, adingabeak ez badu borondatezkotasunik eta gainera, esku-hartze judizialik ez badago edo kasua dagokion Foru Aldundira bideratu ez bada.
- Salaketa asko jarri behar dira epaile batek esku har dezan.
- Adingabeen epaitegiek, egindako kaltearen arabera jartzen dituzte zigorrak, adingabea lehen-goratzeko ordeko konponbide egokienak kontuan hartu gabe.
- Gizarte Zerbitzuek, Hezkuntzak eta gainerako agenteek botere judizialarekin parekatuz izan beharko luketen zeregina mugatuta dago, ahalmen hertsatzaile txikiagoa baitute.
- Buru-osasuneko zerbitzuek ez dute problematika hau duten adingabeentzako berriarazko zerbitzurik.
- Ez dago hainbat problematikari buruzko prestakuntza espezializaturik, gai honetan esku hartzen duten profesionalentzat.
- Ez dago kolektiboarekin lan egiten duten agenteak koordinatzen duen arauketarik.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei buruzko ikuspegi estigmatizatzailea; ondorioz, egoera honetan

daudenek ez dute beti zentro hauetara jotzen, eta kasu gutxi antzematen da eta eskasia dago esku-hartzearen prozesuan.

- Lehen mailako prebentzioko lan gutxi dago.
- Ez dago adingabeengan balio onak sorrarazten duen baliabiderik.
- Ez dago familiak euren balioak sendotzeko elkar daitezkeen gizarte-elkarraldirako tokirik. Etxe-barrurantz bizi da. Ez dago nolabait Elizak edo beste erakunde edo errealitate batzuek, esaterako, familia zabalak, lehen egiten zuten lana ordezkatzeko duen sarerik.
- Aurretiaz esku-hartzerik ez egoteak, arazoa auzibidera helarazten du, lehenago ekin ez zaiolako eta egoera problematikoak, nekez konpon daitezkeenak, dakartza.

7.2. Esku-hartzearen prozesuan aurkitutako alde onak.

- Profesionalizazio-maila handiko baliabide eskaintza handia eta askotarikoa dago.
- Gizarte-Hezkuntzaren arloan esku hartzeko taldeek zeregin gailena dute. Talde hauetako kaleko hezitzaileek antzemateko eta esku hartzeko lan aipagarria egiten dute.
- Konpromiso politiko eta instituzional handia: legeria orokorra eta berariazko legeria garatzen da gai honi buruz, esku hartzea antolatzeko eta protokoloak, tresnak, eta, hala balegokio, berariazko arautegiak egiteko erreferentzia izan behar dena, esku hartzen duten agenteek esku hartzeko prozesuak hobe ditzaten eta hobeto koordina daitezten. Horra hor lege batzuk, besteak beste: 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Familia Bitartekotzari buruzkoa; 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak artatu eta babesteari buruzkoa; 131/2008 Dekretua, uztailearen 8koa, haur eta nerabe babesgabeak barnetegian sartzeko baliabideak arautzen dituenak, eta 163/2008 Dekretua, irailaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko adingabe arau-hausleentzako gizarte- eta hezkuntza-arretako erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- Adingabeen egoitzek adingabeen eguneroko bizitzan gertatu ohi diren dinamika txarrak hausteko duten zeregin nabarmena. Izan ere, egoitza hauetan bizi izaten dituzte adingabe askok euren lehenengo esperientzia onak.
- Heziketari buruz desadostasunak badaude ere, aipatu beharra dago familiek, esku-hartzearen prozesuan zehar lortutako lorpenetan duten zeregin garrantzitsua.
- Berrerortze-maila txikiak.

7.3 Esku-hartzearen prozesuak hobetzeko sustatu beharreko ekintzak.

- Kasuak hobeto antzeman, horietan esku hartu eta horiek desbideratzeko irizpide teknikoak eta esku hartzeko protokoloak sortzea, esku hartzen duten agente guztien arteko koordinazio egokia bermatuz.
- Horiek horrela, interesgarria izango litzateke udal-batzordeak era daitezkeen sustatzea, agente

guztien parte-hartzea bultzatzearen. Batzorde horiek, esku-hartzea antolatzeaz eta sarean lan egiteaz gain, prestakuntza-izaera izango lukete, esku hartzen duten profesionalentzat.

- Gazteen indarkeriazko kasuetarako esku-hartze judizialeko protokoloa egitea, eta adingabeen epaitegi-entzako prestakuntzako ekintzak antolatzea, protokolo hori zuzen aplikatzen den bermatzeko.
- Ikastetxe eta buru-osasuneko zerbitzuentzat, kasuak antzemateko eta horietan esku hartzeko mekanismoak sortzea. Goiz prebenitzea funtsezkoa da, zeren eta askoz errazagoa baita 6 urte-tik beherakoekin esku hartzea nerabeekin baino.
- Adingabeentzako eta euren familientzako lehen mailako prebentzioko ekintzak martxan jartzea, familiengan eta adingabeengan balio onak sustatuko dituzten berariazko programak bultzatzearen.
- Esku hartzeko prozesuak 18 eta 30 urte bitarteko gazteei hedatzea.
- Tutoretza-programak bultzatzea, egoera problematikoetan dauden familiei lagundu eta orientatzeko eta hezteko modu egokiak indartzeko.
- Gizartea, gure seme-alabei irakasten dizkiegun balioez, kontsumismoaz, haizukortasunaz eta beste gai batzuek jabearazteko programak egitea.
- Informazio-kanpainak egitea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak herritarrei ondortzeko, horrelako edozein eskaeraren sarrera-bide ikus daitezen, herritarren artean oraindik dirauen estigmatizazioa indarrrik gabe uzteko.

8. Ondorioak.

Umeen eta nerabeen indarkeriazko jokabideen fenomenoak, problematika korapilatsua eta dimentsio-niztuna da, zeinean eragin zuzena edo zeharkakoa duten era askotako faktoreak dauden.

Ez dago, adingabea jarrera oldarkorra izatera bultzatzen duen kausa zehatzik. Alderdi pertsonalek, familiarrek eta sozialek dute eragina, batzuek besteek baino gehiago, kasuaren berezitasunaren arabera.

Esku-hartzearen prozesuei dagokienez, badirudi lehentasuna duela kasuen prebentzioa eta kasuak goiz antzematea lantzea, baita familia-eremuan esku hartzea ere. Honekin batera, berariazko esku-hartzea egin beharko da, adingabearen profilararen arabera.

Sistema judiziala, berriz, trebatuago egon beharko litzateke egoera horien aurrean azkar erantzuteko eta problematika jakinak daudela baloratzea, adingabeak lehengoratzeko ordezko konponbide egokienak eskaintzeko.

Administrazio publikoek zein erakunde pribatuek, baliabideak abiarazten dituzte, baina egokitu beharko dira eta eraginkorrago koordinatu beharko dira. Gainera, zerbitzu berriak sortu beharra dago, profil jakin batzuk behar bezala artatzeko.

Azkenik, eta amaitutzat jotzeko, esan genezake urrats zehatzak ematen ari direla egoera hobetzeko eta gizartea gero eta gehiago jabetzen dela arazo honetaz. Ezin dugu ahaztu, oraingo nerabeak zaintzea, geroko gizartearen osasuna bermatzea dela.

Bibliografiazko erreferentziak.

Violencia filio-parental: un fenómeno emergente. Mosaico aldizkaria. 2006ko abendua, laugarren garaia, 36. zk.

Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Orokorra, 2007, 44 or.

Bizikidetzeta eta gatazkak ikastetxeetan. EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan Arartekoak egindako ikerketa. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa, 2006ko urria, 290 or.

Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuetan jarduteko gida. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Orokorra, 2007, 42 or.

Ibabe, I., Jaureguizar, J. eta Díaz, O. *Violencia filio-parental. Conductas violentas de jóvenes hacia sus padres.* Vitoria-Gasteiz: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Orokorra, 2007, 144 or.

Eranskina. Esku hartzeko egun dauden baliabideak.



Baliabide orokorrak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen sistemaren oinarrizko unitatea dira, eta herritar guztiei ematen zaizkie, inor baztertu gabe.

Balio eta diziplina anitzeko jarduketa-unitateak dira, ekintza komunitarioa garatzea helburu nagusi dutenak. Horretarako, euren eragin-eremuetan Gizarte Zerbitzuen sistemaren instantziak eskuratzea koordinatu eta kudeatzen dute.

Bizkaiko udalerrri orok du bere Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Kasu batzuetan, Bizkaiko udalerriek elkarteak erabakitzen dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakarria eratzeko, eta zerbitzu horrek Oinarrizko Gizarte Zerbitzu desberdinetan deszentraliza dezake bere jarduerak.

Zereginak:

- Informazio-, balorazio- eta orientazio-zentroak izatea.
- Bizikidetzarako zerbitzuak edo programak ematea, interesdunaren etxean bertan laguntza-jarduerak ematen.

- Esku-hartzeko programak garatzea, pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea erraztuko duten baliabideak ematearren, marjinazioaren prebentzioa lehenetsiz.
- Gizartean dauden premiekiko sentikor bihurtzeko programak egitea, baita erkidegoaren bizi-tzan parte hartzea sustatzekoak ere.
- Dagozkion prestazioen izapideak egitea kudeatzea.
- Informazioa egitea, homogeneizazio-, koordinazio- eta sistematizazio-irizpideak kontuan hartuta.
- Premiak bere lurralde-eremuan antzematea, baita premiak betetzen sor daitezkeen anormaltasunak ere.
- Ordezko ostatua.
- Egin dezaketen eta beren-beregi egozten zaien beste edozein antzeko zeregin egitea.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zerrenda, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean dago eskuragarri:
http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Registro_Foral/ca_excel.asp?centro=ssdb

Gizarte-Hezkuntzaren arloan esku hartzen duten taldeak

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 124/96 FORU DEKRETUAREN arabera, Gizarte-Hezkuntzaren arloan Haur, Gazte eta Familien alde esku hartzeko Egitarautzat joko dira, gizarte, familia edota erkidego ezegokietan bizi diren adingabeen gabezia pertsonalak, afektiboak, famili, heziketa eta gizarte premiak arindu edo asetzea eta halako gabeziarik izan ez dadin aurreneurriak jartzea, eta, gainera, adingabeen ongizatea sustatzea euren nortasuna bete-betean garatu ahal dezaten. Hori guztia, adingabearen eta beraren familiaren aldeko gizarte-hezkuntzako ekintzaren bitartez lortu behar da.

Gizarte-Hezkuntzaren arloan esku hartzeko Planaren egitarauaren burutzapenean, bai Gizarte-Hezkuntza arloko Esku-hartze Lantaldeek eta bai toki erakundeek eta partzuergoek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek parte hartuko dute.

Administrazioek kudeatu eta betearaziko dute zerbitzu publiko hau. Horregatik, beraiek erabaki behar dute zerbitzua nola kudeatu behar den eta, hala dagokionean, Gizarte-Hezkuntza arloko Esku-hartze Lantaldeak kontratatzeko erarik egokiena zein den. Lantalde horiek, gizarte-hezitzaileek osatzen dute gehienbat, gero eta psikologo gehiago badago ere (gizarte-hezkuntza arloko esku-hartzea esku-hartze psikosozialarekin osatzeko).

Ingurune irekia eta familia dira esku-hartzearen eremuak. Ingurune irekiko esku-hartzearen barruan, adingabeentzako arreta, banakakoa nahiz taldekoa, barne hartzen da batik bat, eta lokaletan edo toki irekietan, esaterako, kalean bertan, esku hartzen da. Familien esku hartzeari dagokionez, familia bakoitzarekin nahiz taldeko egitarauen bidez gauzatzen da, eta helburu du, adingabeekin ez ezik, adingabearen familiarekin eta ingurune hurbilarekin ere lan egitea, adingabeak egoki garatzea eragozten duten zailtasunak arintzearen.

Prebentzioarekin loturiko esku hartzeko baliabideak

Prebentzioarekin loturiko esku hartzeko baliabide hauek daude gaur egun EAEn:

Euskadi eta Nafarroako Familia Terapia Eskolako Gurasoenganako indarkerian esku hartzeko zentroa (Euskarri)

Euskadi eta Nafarroako Familia Terapia Eskola, 1993. urtean sortu zen, familiaren esku-hartzearen arlo nahaspilatsuan trebatu nahi direnei prestakuntza zehatza, osoa eta etengabea emateko helburuarekin. Profesionalak eremu klinikoetan nahiz eremu soziosanitarioetan edo hezkuntza-eremuetan prestatu eta trebatzeko baliabidea da. Familiek eta adingabeekin (epaitegietatik desbideratu direnak ala ez). Esku-hartze terapeutikoa eta buru-osasuneko lana ere egiten ditu adingabeekin, gurasoekin eta familiekin.

Euskadiko eta Nafarroako Familia Terapia Eskola

Luzarra kalea 18 1.a. 48014 Bilbo

Tel.: 94 475 78 80

Helbide elektronikoa: evntf@avntf-evntf.com

<http://www.avntf-evntf.com>

Ikaskuntza-erkidegoak

Ikaskuntza-erkidegoak, hezkuntza-jardunbidea aldatzeko proiektua dira, gaur egungo gizartea etengabe aldatzeak dakartzan erronkei eta premiei berdintasunez erantzutearren.

Eskola-porrotaren eta bizikidetzaren arazoak direla eta, eskola aldatu egin behar dela uste izaten da. Eskuarki, arazoa ikasleena edo euren familiena, hots, ikasleen ingurunearena, dela pentsatzen da. Horrela pentsatzeak, neurri berezileak (batzuk besteak baino gehiago) hartzera bultzatzen du, eta egoerak ez du onera egiten.

Ikaskuntza-erkidegoak, premia hauei erantzuna emateko sortu ziren:

- Gizarteko desberdintasunak gainditzeko.
- Pertsona orori kalitateko hezkuntza, gaur egungo premiak betetzen dituen, emateko.
- Pertsona orori, gizarte berdinzalea, kultura artekoa eta solidarioa eraikitzeko elkarrizketarako eta kritikarako gaitasuna ematea.

Ikastetxeak ikaskuntza-erkidego bilakatzeko proiektua, ikaskuntza dialogikoan oinarritzen da, bi helburu hauek lortzearren: ikasleek ahal duten gehien ikas dezatela eta bizikidetzaren egokia izan dadila. Honek dena berriz antolatzea dakar, dena: ikasgela, ikastetxea bera, eta ikastetxeak erkidegoarekin, auzoarekin edo herriarekin duen harremana. Hori guztia, elkarrizketa oinarri hartuta.

Hezkuntza-erkidegoak eta, batez ere, familiek, ikastetxearen antolaketan eta kudeaketan esku hartzen dute lan-batzordeen bitartez, ikasgelan sartzen dira talde elkarreragileen bitartez, eta ikastetxean bertan prestakuntza-jardueretan parte hartzen dute.

Gehiago jakiteko, jo hona:

<http://www.comunidadesdeaprendizaje.net>

Eskola-orientazioa (Berritzeguneak)

Irakasleen eta ikastetxeen eskura hezkuntza-berrikuntzaz zerbitzu eman eta aholku emateko jarri diren guneak dira. Hezkuntza-sistemaren premiei, batez, ere, gizarteko eskaera berriei erantzuteko sortu dira.

Zonaka eta lurraldeka antolatzen dira, eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako mailei bakarri ematen die arreta. Hiru arlo hauetan jarduten dute:

- Gai hauei buruz aholku ematen:
 - alderdi didaktiko orokorrak eta bereziak zonako ikastetxe eta irakasleentzat;
 - ikasketa-planari buruzko ikasleen ekarpenak, kontu didaktikoak eta hizkuntza-normalizazioa;
 - materialak eta baliabide pedagogikoak eskatzea.
- Irakasleen prestakuntza.
- Hauei buruz saiakuntzak egin eta ikertzea:
 - hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dauden ikastetxeei eta bertoko irakasleei laguntza ematea.
 - ikastetxeen berrikuntza-planetan parte hartzea.
 - zeregin hauei egokitutako materialak sortu, bilatu, aztertu eta zabaltzea.
 - irakasleen artean esperientziak bideratzea.

Gehiago jakiteko, jo hona:

<http://www.berritzeguneak.net>

Astaldiko udal-zentroak eta astaldiko elkarteek garatutako gizarte- eta hezkuntza-egitarauak

Adingabeak astialdian primeran pasatzeko joaten dira bertara. Bertan garatzen da, hain zuzen, hezkuntzako eta gizabidezko lana, antolatzen dituzten jardueren bidez.

Gehiago jakiteko, jo hona:

<http://www.astialdiforua.org>

Unibertsitatea (Psikologia, Pedagogia, Irakasle-ikasketak eta Gizarte Hezkuntza)

Unibertsitateak arlo honi dakarkion ekarpenik nagusienetako bat, ikerketa aplikatua izan daiteke, zeren eta, baliabideak antzematen diren benetako premietara egokitzeko datuak eman baititzake.

Gizarte-zientzietako ikerketa, arazo psikologikoen eta sozialen kausen ikerketan oinarritzen da, baita arazo horiei ekiteko egitarau eta tratamenduen taxuketan eta ebaluaketan ere. Hezkuntzako profesionalak eta nerabeen indarkeriarekin zerikusia duen oron esku hartuko dutenak prestatzeko baliabide ere da.

Euskal Herriko Unibertsitatea: <http://www.ehu.es>

Deustuko Unibertsitatea: <http://www.deusto.es>

Esku hartzeko baliabideak, profilen arabera.

Buru-osasuna (publikoa nahiz pribatua). Haurrentzako Psikiatriako Unitateak

Bizkaiko ospitalez kanpoko asistentzia psikiatrikoko eta buru-osasuneko zerbitzua, Osakidetza-ren barrukoa, bere jarduera nagusia, hots, buru-osasuna sustatzea eta asistentzia psikiatriko espezializatua, Bizkaiko buru-osasuneko 29 zentroyen sare baten bidez burutzen du, bizkaitarrentzat, ambulatorio-ingurunean, nagusientzako, haurrentzako eta gazteentzako programetan eta alkoholismoari edo beste drogazaletasun batzuei buruzko programetan.

Bizkaiko Buru Osasuna

Erronda kalea 4 - 2. ezk., 48005, Bilbo

Tel.: 94 600 69 48

<http://www.saludmentalbizkaia.org>

Talde Psikosozial Judiziala

Talde Psikosozial Judiziala, organo teknikoa da, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzaren menpekoa. Bere misioa, bere espezializazio-arloan, jurisdikzio guztietako, batez ere, jurisdikzio penaleko eta familiarreko epaitegiei, auzitegiei eta fiskaltzei laguntza ematea eta aholkularitza teknikoa ematea da.

Talde hau, hainbat arlotako (psikologia, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza) profesionalek eta administrariak osatzen dute, koordinatzaile nagusiaren eta lurralde-koordinatzaileen agindupean. Talde bana dago Lurralde Historikoetan.

Talde Psikosozial Judizialari zeregin hauek dagozkio, bere lurralde-mugapenean:

- Organo judizialek eta fiskalek eskatuta, aditu-txosten psikologikoak, psikosozialak, gizarte-eta familia-arlokoak eta gizarte- eta hezkuntza arlokoak, egitea, eta epaiketetan aurkeztea.
- 5/2000 Lege Organikoak urtarrilaren 12koak, Adingabeen Erantzukizun Penalekoak xedatzen dituen zereginak egitea. Lege hori aldatzen duen Lege Organikoak zeregin horiek talde teknikoak egin behar dituela xedatzen du.
- Magistratuekin eta fiskalekin elkarlanean aritzea, adingabearen onerako prozesuko frogak.
- Legeak beren-bereri xedatzen dituen beste esku-hartze batzuk.

Aditu-zereginetan, taldea hauetan da aditua:

- Adingabeei dagozkien gaiak: adingabeen erantzukizun penala (aholkularitza eta laguntza teknikoa eta bitartekotza), adingabeen babesa, sexu-erasoak eta abusuak eta haurren lekukotza.
- Familia-zuzenbidearen prozedurak.
- Balorazio psikologikoak eta gizarte- eta familia-balorazioak, batez ere, sexu-delituen eta etxeko indarkeriaren biktimengan, eta lekukotza eta uko egitea baloratzea.

- Nortasunari eta psikometriari buruzko ikerketa osagarriak, egozgarritasunaren balorazioan eta ezintasunen suposamenduetan.

Gehiago jakiteko, jo Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera:
<http://www.juslan.ejgv.euskadi.net>

Bizkaiko Talde Psikosozial Judiziala
Bilboko Justizia Jauregia

Barroeta Aldamar kalea 10, 8. solairua. 48001 Bilbo
Tel.: 94 401 67 30 - Faxa: 94 401 69 98

Barakaldoko Justizia Jauregia

Bide Onera plaza z/g 1. solairua. 48902 Barakaldo
Tel.: 94 400 10 00 - Faxa: 94 400 10 72

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiko Umeen Zerbitzua

Umeen Zerbitzua hiru ataletan banatzen da:

1. Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala.
Babesgabe dauden adingabeen babes soziala eta instituzionala lortzeko kudeaketa administratiboa dagokio, baita prebentziozko ekintza ere, egoera hori gerta ez dadin.
2. Familia Harreraren eta Adopzioen Atala.
Babesgabe dauden adingabeak familiaratzea lortzeko kudeaketa administratiboa dagokio, jatorrizko familian berriz familiaratzeko lana lehenetsiz, eta hori posible ez balitz, besta familia batean familiaratzeko, bai harreraren bai adopzioaren bidez.
3. GUFeko Egoitza Harreraren Unitatea
Bizkaiko egoitza-zentroen sarean egoitza harreraren zerbitzua ematea dagokio

Gehiago jakiteko, jo Umeen Zerbitzura. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila:
http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleDepartamento.asp?Tem_Codigo=3

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiko Emakume eta Familien Zerbitzua

Sexuen arteko berdintasunaren aldeko politikaren barruan, emakumeak sustatu eta gizarteratzera bideraturiko eginkizunak betetzea dagokio Emakume eta Familien Zerbitzuari, baita familiei arreta eta laguntza ematea ere.

Gehiago jakiteko, jo Emakume eta Familien Zerbitzura. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila:
http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleDepartamento.asp?Tem_Codigo=3

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Justizia Sailburuordetzako Gazte Justizia.

Eusko Jaurlaritzak, 2007. urtearen bukaeran, etxebizitza bat ireki zuen Donostian, etxeko indarke-riarekin loturiko delituengatiko neurri judizialak bete behar dituzten adingabeak hartzeko. Adinga-beak auzibidez sartzen dira, eta jarritako zigorra bete behar dute.

Gehiago jakiteko, jo Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera:
<http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/>

Gizakia fundazioa

Gizakia fundazioa, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, onura publikoko erakundetzat jo dena. Prebentziozko, asistentziazko eta gizarteratzeko eta lanetan txertatzeko egitarauak eta ekintzak antolatzen ditu, gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden taldeentzat.

Arlo hauetan lan egiten du:

A. Prebentzioa

Bi egitarau dauzka:

- Telefonozko arreta-zerbitzua, drogei buruz aholkuak, orientabideak eta argibideak ematen dituena.
- Hirusta izeneko egitaraua.

Nerabeengan arrisku-jokabideak prebenitzeko laguntza-egitaraua da. Arrisku-jokabidetzat hartzen da, denboran zehar dirauen eta nerabea heltzea eta heldu gisa gizarteratzea eragozten duen jokabide oro, hala nola, eskola-porrota, eskola-absentismoa, etxera ez agertzea, familia-harreman gatazkatsuak, lapurreta txikiak edo delinkuentziako beste seinale batzuk, drogak hartzeari ekitea, edari alkoholodun gehiegi edatea edo agresibitate-gertakariak, besteak beste.

Lanaren jasotzaileak: nerabeak, euren familiak eta, nerabeekin harremanetan egonda, arrazoi pertsonalak edo profesionalak direla eta, orientazioren bila dagoen pertsona edo erakunde oro.

B. Asistentzia

Bost egitarau ditu:

- Bizkaiko Proyecto Hombre.
- Kokaina eta beste psikobizigarri batzuk.
- Esku-hartzea espetxean.
- Metadonaz mantentzea.
- Familientzako arreta.

C. Gizarteratzea eta laneratzea

Arlo honen helburua, gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen laneratzea sustatzea eta geroago euren lanpostuetan jarrai dezatela da, zeren eta, eurentzat zailagoa izaten baita kalitateko lan bat eskuratzea. Horretarako, 3 bide hauen bitartez esku hartzen da:

- Enplegurako orientabideak.
- Enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza.
- Enplegua sustatzea.

Gizakia fundazioa

Madariaga etorbidea 63
48014 Bilbo

Tel.: 94 447 10 33
<http://www.gizakia.org>

Etorkintza fundazioa

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, drogazaleen prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea helburu duena. Arlo hauetan lan egiten du:

A. Prebentzioa

- Prebentzio unibertsaleko zerbitzua, erkidego, eskola eta familiarentzako prebentzio-egitarauak antolatzen dituena.
- Arrisku-egoeran dauden nerabeentzako zerbitzua, eskolan prebentzio hautakorreko egitarauak antolatzen dituena, familiei arretan ematen diena eta nerabeen alde zuzenean esku hartzen duena.
- Ikerketa- eta argitalpen-zerbitzua, prebentzioan diharduten hezitzaileentzat, babes-faktoreak sendotzearren eta arrisku-faktoreak gutxiagotzearren.

B. Laguntza eta gizartean txertatzea

- Ibiltari-tratamendua.
- Gizartean txertatzeko proiektuak.
- Laguntza terapia-komunitatean.

Zuzendaritza, Prebentzio Unibertsala eta Administrazioa

Hurtado de Amezaga kalea 27 2. ezk.
Bilbo 48003
Tel.: 94 444 42 49; Faxe: 94 421 06 19

Nerabeen prebentzioa

Jon Arrospide kalea 11, etxabea
Bilbo 48014
Tel.: 94 400 15 70; Faxe.: 94 444 20 66
<http://www.etorkintza.org>

Berriztu elkarte

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, gizarte-arazoak edo gatazkak dituzten pertsonen eta harreman- edo hezkuntza-arazoak dituzten familien edo taldeen alde lan egiten duena. Hainbat egitarau antolatzen du nerabeen alde:

- *Nerabeen aldeko egitaraua*

Nerabeen aldeko hezkuntza-egitaraua, orientazio eta esku-hartze espezializatuko baliabidea da, batez ere, gizarte-gatazkan dauden nerabeen aldekoa.

Nerabeak ditu xede eta esku-hartzeari ikuspegi orokor batetik ekiten dio, eta horretarako, hainbat testuingurutan egiten ditu ekintza.

Erreferentzia-figura hezitzailea da, zeregin hauek dituena: nerabearekin hezkuntza-harreman zuzena sortzea, eta harreman hori abiapuntu hartuta, eskariaren izaeraren, behaketa-denboraldian ikusitako ondorioen eta denboraldi horretatik aurrera egingo den hezkuntza-proiektuaren (esku-hartzearen helburuak eta estrategiak jarri dituena) arabera, banakako, familiako eta gizarteko zein erkidegoko prozesuak erraztu eta koordinatu eta horietan bitarteko izateko asmoz.

Horra hor zerbitzuak:

- Nerabearen aldeko gizarte- eta hezkuntza-esku hartze zuzena.
- Nerabearen aldeko hezkuntza-psikologiako esku-hartze zuzena.
- Nerabea eta bere familia orientatzea.
- Prestakuntza- eta lan-baliabideak eta baliabide terapeutikoak edo aisiako eta astialdiko baliabideak bilatzea.
- Erakundeekin bitarteko izatea: eskola, lan aurreko prestakuntza-baliabideak, lan-mundua, gizarte-zerbitzuak, justizia eta Osakidetza, besteak beste.
- Nerabearekin eta bere familiarekin lan egingo duten gizarte-agenteak koordinatu eta martxan jartzea.

Gizarte-gatazkan dauden nerabeen alde jarduten du, hain zuzen, ezaugarri pertsonalak, familiarrak edo sozialak direla eta, arrisku-faktore larriak izateagatik ingurune irekian hezkuntza-psikologiako esku-hartzea behar dutelako.

Nerabeen familien alde, batez ere, gurasoen alde, seme-alabekin harreman-arazoak izateagatik arazo horiek konpontzeko orientazioa eta laguntza behar dituztelako.

- *Laguntza-terapia*

Orain zentroa, umeen, nerabeen, gazteen, helduen eta familien alde jarduten duena, helduak, familiak eta erakundeak umeen, nerabeen eta gazteen portaera-arazoez gero eta kezkatuago daudelako sortu zen. Orain zentroak zerbitzu hauek ematen ditu:

- Kontsulta, aholkularitza eta orientazioa, profesional espezializatuen eskutik.
- Nerabearen egoeraren ebaluazio orokorra egitea.

- Laguntza behar duten nerabeen familiei lagundu eta tratatzea. Familiarekin eta nerabearekin nahiz familiarekin bakarrik lan egiten da.

Jasotzaileak:

- Harremanak izateko edo gatazkak konpontzeko modu desberdinak ikasi behar dituzten adingabeak.
- Seme-alabarengan arrisku-jokabideak antzematen dituzten familiak edo seme-alabarekin harreman txarrak izategatik orientazioa, laguntza eta tratamendua behar dituzten familiak.
- Nerabeekin harremana izatean, arrazoi profesionalak edo pertsonalak direla eta, orientazioa behar duten erakunde publikoak, pribatuak eta pertsonak.
- *Gazte-justizia*

Egoitza-ingurunea

Gaur egun, Berritzu hezkuntza-elkarteak, bi ikastetxe (Mendixola eta M.A. Remírez) eta bi “Autonomia Egoitza” kudeatzen ditu. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren menpekoak dira.

Ikastetxe edo egoitza horietan, hezkuntza-aukera ematen zaie gazte arau-hausleei. Horretarako, hezkuntza-profesionalen diziiplina anitzeko taldea du.

- *Ingurune irekiko neurri-sistema*

Ingurune irekia

Erakunde honek, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eta Nafarroako lurraldeko ingurune irekiko neurrien sistema kudeatzen du.

Adingabeen epaitegiak jarritako zaintzapeko askatasuneko neurriak betearazteaz arduratzen da, baita gizarte- eta hezkuntza-zereginak, tratamendu ambulatorioa, gizartearentzat lan egiteko zigorra, asteburuetan etxean ematea ere.

Esku hartzeko hiru talde ditu. Talde horiek, hezitzaileek osatzen dituzte, arduradun batek koordinatzen ditu, eta lurraldeka antolatzen dira.

Zabalik Eguneko Egoitza

Erkidegoan txertatutako zentroa da, zeinean laguntzako hezkuntza-jarduerak egiten diren. Neurri honek, adingabeari, egunaren zati handi batean, giro egituratua ematea du helburu, bere familia-giroaren gabeziak orekatzeko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak egiten.

Eguneko egoitzak bereizgarri du, bertan adingabearen gizarte- eta hezkuntza-proiektuaren funtsa gauzatzen dela, adingabea aisiazko edo kulturako beste baliabide batzuk erabiltzeko beste leku batzuetara joan badaiteke ere. Neurri honen jasotzaileak, beraz, bere etxean bizitzen jarrai dezake edo harrera-egoitzan bizi daiteke.

Jasotzaileak, 5/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 12koak, Adingabeen Erantzukizun Penalekoak, eta Lege hori aldatu zuen Lege Organikoak, delitu tipifikatu dituzten egitateak egiteagatik erantzukizuna eskatzen zaien nerabeak eta gazteak dira. Neurri hau, kasu hauetan ezartzea gomendatzen da:

- 16 urtetik gorakoa bada.
- Antzeko zerbitzu batera joaten bada.
- Antzeko neurriak betearazten lehenago esperientzia onak gertatu direnean.
- Portaera-arauekin aintzapeko askatasuna gauzatzeko aukerarik ez badago.

Berritzu Hezkuntza Elkartea

Cervantes etorbidea 43 2.a 48970 Basauri

Tel.: 94 440 94 10

Helbide elektronikoa: secretaria@berritzu.com

<http://www.berritzu.com>

Nortasun/Nahastea Dutenei Babesa eta Tratamendua Emateko eta Gizarteratzen Laguntzeko Euskal Elkartea (AVATI).

Nortasunaren nahastea/nortasunaren nahaste mugakoa dutenen senideen artean autolaguntzako zereginak egiten ditu. Beste erakunde batzuekin prestakuntza eta esperientzia partekatzen dute.

AVATI TP/TLP

Erronda kalea z/g (5. zenbakiaren aurrean),

3. solairua, D departamentua. 48005 - Bilbo

Tel: 946 569 212

Helbide elektronikoa: info@avati-tlp.com

<http://www.avati-tlp.com>

Amigó fundazioaren Zabalondo Etxea

Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza-harrerarako zentroen sarekoa da. Umeen Zerbitzuaren bidez desbideratzen da, bai familiarentzat aukerarik onena dela uste delako bai aldentze-aginduren ondorio den adingabearen babesgabezia-egora dagoelako. Nerabeekin eta euren familiekin egoitza-harreran lan egiten da, hezkuntza-psikologiako ikuspegi batetik eta gurasoen eskolaren egitarau baten bidez.

Gehiago jakiteko, jo hona:

<http://www.amigonianos.org>

Gizarte Ekintzako Agintzari Sozietate Kooperatiboa

1977. urteaz geroztik dago Agintzari gizarte-bazterkeriaren arloan. Elkarte gisako nortasun juridikoa 1983. urtean lortu zuen, eta harrezkero, buru-belarri dihardu gizarte-salaketan, ikerketan eta arrisku- eta babesgabezia-egoeran dauden adingabeak eta gazteak artatzen, batez ere, etxe funtzionalak sustatu eta kudeatzen eta familia-hezkuntzako eta kaleko gizarte- eta hezkuntza-egitarauak antolatzen, esku-hartze komunitarioko taldeen bitartez.

Zerbitzu hauek ematen ditu:

- Hainbat udaletako gizarte- eta hezkuntza-esku hartzeko zerbitzuak kudeatzea.
- familiar (EPAF) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Familia Harrera egitaraua kudeatzea.
- Sexu-abusuko egoeretan arreta psikologikoa emateko egitarauaren kudeaketa (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila).
- Arreta psikosoziala, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan ematen dena.
- Kabinete psikosoziala.
- Prestakuntza.
- Aholkularitza teknikoa.
- Ikerketa.

Agintzari Sozietate Kooperatiboa

Agirre Lehendakaria etorbidea 11, 3-4 departamentuak
48014 Bilbo
Tel.: 94 475 70 05
Faxa. 94 475 76 71
Helbide elektronikoa: agintzari@agintzari.com
<http://www.agintzari.com>

Ongizate psikosozialerako elkarte (ADI EGON)

Arlo psikosozialeko, klinikoko, komunitarioko eta hezkuntza-arloko profesionalen taldea arduratzen da. Batez ere, familiaren barruko indarkeria prebenitzen dihardu, baita gazteen eta euren familien aldeko esku-hartze psikosozialean ere.

Hainbat egitarau antolatzen du, esaterako:

- Nerabi-Ekin (nerabeekin) I. eta II. Indarkeria aitaren eta amaren aurka erabili duten adingabeentzako eta euren familientzako arreta psikosoziala (salatu ala ez).
- Hautxoekin eta Guraso Gida: Familiaren barruko indarkeria prebenitzeko, 0 eta 3 urte arteko adingabeen gurasoentzat.

ADI EGON elkarte

Iparraguirre kalea 50, 1. esk. 1 l departamentua. Bilbo
Tel.: 944 70 45 54
<http://www.adiegon.es>

Bizgarri elkarte

Ume babesgabeen familietan esku hartzen duen egitaraua. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean babes-espeditentea hasia duten familientzat. Bizgarri elkartearen egitarauak, bere familiaren etxean bizi diren umeak nahiz aldi baterako etxeoengandik banandu diren umeak artatzen ditu.

Bizgarri elkarte

Uribarri kalea 1
48007 Bilbo

Tel.: 944 130 097

<http://www.bizgarri.com>

Giza Harremanak sustatzeko elkarte (AMIKECO)

Elkarte honek, gizakien, gizarte-taldeen eta herrialdeen artean komunikazioa, elkartasuna, adostasuna eta adiskidetasuna sustatzea du misio, baita egoki hazteko eta gatazkak modu baikorrean konpontzeko gizakien, taldeen eta gizarteen arteko elkartzea sustatzea ere.

Egitarau hauek antolatzen ditu:

- Indarkeriaren aurrean esku hartzeko egitarauak.
- Gatazketan bitarteko izatea eta erasotzaileak lehengoratzea.
- Prestakuntza-ikastaroak eta trebetasunak garatzea.
- Zabalkundea, solasaldiak, hitzaldiak eta jendaurreko ekitaldiak.

AMIKECO

Tel.: 656 798 435

Helbide elektronikoa: info@amikeco.org

<http://www.amikeco.org>

Gurasoekin esku hartzeko baliabideak

Familia Bitartekotzarako Zerbitzua

Zerbitzu hau, gaur egun, Familia Bakegintzako Euskal Elkarteak kudeatzen du. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sortu zuen zerbitzu hau.

Doako zerbitzua da, familiarekin edo bikotekidearekin arazorik duenak nahita eskura dezakeena.

Familia-bitarteko batzuen taldeak osatzen du zerbitzu hau. Diziiplina anitzekoak dira (arloan soziala, arlo psikologikoa eta arlo juridikoa).

Toki neutrala eskaintzen du, pertsonak familiarekin edo bikotekidearekin duten gatazka azaldu eta ulertzeko. Horrela, erabakiak adostasunez hartzea errazten da. Gainera, hausteko zorian dauden bikoteei, erabakiak hartzeko laguntza ematen die, eta, bitartekotza-testuinguruaren barruan, laguntza psikologikoa eta soziala ematen die, baita aholkularitza juridikoa ere.

Helburu hauek lortu nahi ditu, besteak beste:

- Komunikazioa eta gatazken erabilera erraztea.

- Familia-egoera berriari erantzukizunez aurre egitea ahalbidetzea.
- Krisialdian dagoen familia berriz antola dadila ahalbidetzea.
- Nukleo-familia eta familia zabala osatzen duten pertsonen artean harreman onak egon daitezela ahalbidetzea.
- Emoziozko eta aldi baterako kostuak txikiagotzea.
- Auzibideak saihestea.

Familia Bakegintzarako Euskal Elkarte

Santutxu kalea 69. Bilbo

Telefonoa: 944277788

Doako telefonoa: 900 10 00 80

Gehiago jakiteko, jo hona:

<http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/>

Gurasoen Eskola

Gurasoen Eskolak, ikastetxeetako eta institutuetoako gurasoen elkarteek nahiz udalak berak sustatzen ditu.

Eskola horiek, besteak beste, aditu baten (psikologo edo pedagogoa) prestakuntza-solasaldiak eskaintzen dituzte, hainbat gairi buruz: gurasoen arteko harremanak, nerabearen portaera, adingabeen eboluzio-aldien berariazko arazoak, elikatzeko nahasteak, gai toxikoen kontsumoa, sexu-hezkuntza... Eskola horien saioen egiturak, esperientziak trukatzeta eta elkarrizketa sustatzen ditu.